



HONDARRIBIA



D. L. S. S. 122/86 Inp. B. Fernández - J. Arana - 27. BUN

37. zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1990. martxoa



JUAN JOSE LAPITZ

Juan Jose Lapitz Mendia dugu ale honetan solakide. Gastronomiazko Kazetaritzako Sari Naziola irabazi du joan den urtarrian eta hori izan du beragana jotzeko aitakia. Komunikabideetako gizona dugunez gero, ohitua dago eta ez du eragozpenik jarri.

Hondarribiar honen firma oso ezaguna da Euskal herriko eta kanpoko aldirizari askotan. Estatuko alde guztietatik ere eskatzen dute bere lumaren kolaborazioa. Gastronomiazko aldirizari guztietan idatzi du. Paris, Argentina, Brasil eta New Yorken ere ibilia dugu Euskal herriko gastronomia eza-gutarazten.

Beste ardura eta kargu askoren artean, Bordele eta Toulouseraino inisten den gastronomiazko kofradien federazioaren buru du.

Hala ere, berak Hondarribian ditu sustaiak, eta iniziatiba-iturburu emankorra denez, ekintza askoren eragile izan dugu eta dugu Hondarribian bertan ere. Besteak beste, produkto artesanalen feria bat proposatzen digu herrian antolatzeko.

(6. orrialdean)

HONDARRIBIKO KIROL-KAIA DELA ETA

Azken bolada honetan Hondarribiko Kirol-kaia, kai deportiboa, aipatzen zaigu komunikabideetan; egunkarietan eta telebistetan batipat. Zenbaitetan erabili den hizkera motagatik gauzak eginak edo aski erabakiak daudela uste lezake norbaitek, herritarrik, berriz, ez daukagu informazio handiegirik jaso arazoaz eta Udalak berak ere ez du hitzik esan orain arte. Zertan dugu, bada, arazoa eta zein da Hondarribiko Udalaren jarrera? Honen berri jakin nahian Hirigintzako Batzordera jo dugu Udaletxera.

Hondarribiko Udalak lehen berria, Eusko Jaurlaritzak emanda, joan den urtarriaren bukaeran izan zuen Donostian, Portu Departamentuan. Gato Diaz zuzendaria eta bertako injeniodoreekin egin zen bileraren batean. Harrezkero ez da beste bilerarik egin Jaurlaritzaren ordezkariekin. Goizegi da, beraz, oraindik inolako iritzirik emateko eta beharrezko denbora eskatzen du Udalak arazoa arretaz aztertzeko. Horretan ari da geroztik Hirigintzako Batzordea.

Eusko Jaurlaritzaren proposamenean Kirol-kaia hondartza ondoan legoke. Lurralde hori, jakina denez, MOPUrena da, ez da Udalarena. Kaia egitea, berriz, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzari dagokio.

Aurkeztu den asmoaren arabera, hondartza osoa 130 bat metro aurreratuiko litzateke itsas aldera. Hondarribiko hondartza, hondartza "bizia" da, hau da, urtetik urtera berez haundituz doan hondartza; urtero bost bat metro gutxi gora-behera. Hondartza 130 metro horiek aurreratzeko Kirol-kaia egitean hustuko litzatekeen hondarra erabiliko litzateke. Beraz, itsas ertza aurrera eramian eta hondartzaren hasiera ere beste ehun metrotan aurreratzeari proposatzen du Eusko Jaurlaritzak. Horren arabera, hondartza "lehorrak", marea gorak bustitzen ez duen zatiak alegia, 100 edo 130 metro litzateke sakonean, oraingo luzera berarekin.


Kirol-portua hondartzaren ondoko zabalgunean egongo litzateke, gaurko egunean aparkamentuak eta eskonbrera dauden lekuan. Kaia eta hondartzaren artean aparkamentu publikoa legoke. Udalak bere plangintza egina du eremu horretarako eta oraindik onartu gabe dauden Arau subsidiarioen arabera alderdi hori kirol eta jolas edo atsedeen leku bihurtzeko asmoa zegoen.

Kaiaren sarrera espigoiaren irekiko litzateke, gaurko egunean hondarra hasten den lekuan gutxi gora-behera. Ondorioz, espigoiaren ebakia geldituko litzateke eta zuzen pasatzerik ez litzateke egongo.

(azken orrialdean)



ZUHAITZ EGUNA



Urteak joan eta urteak etorri, gehienetan Otsaileko hilean egiten da zuhaitz eguna. Beste urteetan, aurtun bezalako premiari izaten ez delako edo izaera testimonial xamarra izan ohi du egun honek eta egun bakar batez antolatzen da aurtun bitan egin den bitartean. Urte hortakoak, ordea, izan ditugun suteen ondoren, bazeukan esanahi berezirik, zeren eta haur eta helduei, arbolak ez direla bere gisa etortzen eta mendia zaindu egin behar dela, gizakiontzako oso mesedegarriak direla nolabait irakatsi nahi izan baita. Baita ere, lehen esandakoaz gain, mendia erretzeak oso ondorio txarrak ekartzen dituela guretzat adieraztea beharrezkoa zen eta horretantxe ahalegindu

gara Otsailaren 16 eta 17an.

Berriro Jaizkibel eta beste mendiak arbolaztaturik ikusi nahi dugun jende sail polita bildu ginen bi egunetan. Eguraldiak ere ez zuen hutsik egin eta hantxe aritu ginen ahal zena egiten, zuhaitzak sartu eta sartu, egunen batean handiak eginak ikusiko ditugulako itxaropenarekin. Baina, behar bada, zuhaitzak landatzea bezain inportantea da ingurugiroa errespetatu eta zaindu egin behar delako kultura hedatzea. Horrela, batek hau esaten duela eta besteak hura, sortzen dira mendia zaintzeko beste ideiak, eta horrelaxe sortu da jaizkibelen ez direla zuhaitzak bakarrik landatu behar, baizik eta garbitasun piska baten behar ederra dagoela.

Batez ere, suteak bitarteko direla lar eta oteak erre ondoren, Hartzuko errotatik hasi eta Faro ingururaino azaldu diren urdakeriak ikusi ondoren.

Askotan bezala, ideia hitzetan bakarrik gelditu ez dedin, jadanik hasiak gara zenbait urrats ematen Martxo erdi aldera, zuhaitz eguna bezala, zikinkeriak biltzeko beste egun seinalatua, lehen aipaturiko parrajeetan antolatzen. Natura maite dugunok ezin dugu inondik ere onartu Faro aldean jaurtitzen diren botil, lata, plastikoa, etab. Benetan lotsagarria da suak bazter guztia erre eta gero azaldu dena. Ingurugiroa ezin du horrelako erasorik jasan, eta zerbaitegin beharra dago hoinbeste azolagaberen aurrean.

Jakinaren gainean nago, zenbait jenderi, batzuek jaurtitzen dituzten gauzak, besteak biltzen aritze hori ez zaiela batere gustatuko, hala ere, ahalegin bereziboa bategiteak mereziko duela uste dut, besterik ez bada, mendia eta natura gubxi edo ezar maite dutenei exenplua emateko bederen.

Lehen aipatu bezala, Martxo erdi aldeko larunbata edo igandaren batean egiteko asmoa dago, eta egun horretan ezin gara talatu mendia eta ingurugiro garbiagoa, arbolaztatuagoa, ekologikoagoa ikusi nah dugunok.

Joxe Juan

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Martxoak 5 - 11: Erauskin
12-18: Mayi
19-25: Iraola
26-Apirilak 1: Erauskin
Apirilak 2 - 8: Mayi
Mayi, Alm. Alonso kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Martxoak 4: Martinez
11: Arratibel
18: Garmendia
19: Martinez
25: Arratibel
Apirilak 1: Garmendia
Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan.
LARUNBATETAN:
Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan.

IGANDEETAN

Goizeko 8,30etan Betherranetan.
9etan Amuten.
9,30etan Guadalupen.
11etan Portuan.

"EIJIAN, EIJIAN NA NA"

Atsedean pixka bat hartzen nengoela, errebisten otarrera luzatu nuen besoa bertatik denbora pasagarri bat irakurtzeko asmoz. Aldizkari horietako baten aurreneko orrialdean bi umetxoren begi tristeak topatu zituzten nereek, eta begirada ahul eta triste haien alzean zer ote zegoen jakin nahia erre zitzaidan. Jakina, gosean zere bere gordinkeria izugarriarekin.

Denbora berean, nere burua nolabait zuritu nahian edo, honelako pentsamendu eta sentipenen burruka, sumatzen nuen nigan: "Baina, zer egin ote dezaket nik egoera ikaragarri honen aurrean?... hori agintarien egitekoa da... hemen ere badugu nahiko problema hara begiraka jartu gabe... Hobe dut errebista aldatzea, Marta Chavari eta J. Presley nondik nora dabilzten jakiteko..."

Hala ere, orriak pasa ahal, gosetien egoera gero eta larriago ikusteak pixka bat pentsatzera behartu ninduen. Une batzuetan lotsatua eta ezinkor gelditu nintzen, neure buruari esaten niola: baina nola ausartzen gara pakearen izena erabiltzera, gizadiaren erdia ase-betea dagoela, beste erdia goseak hiltzen ari den bitartean? Gertaera dramatiko honen aurrean bai errudun garaia nola aberatsetan eramaki dugun kontsumismoko bizikera honekin.

Agintarien lana dela diogu; begira, bada, errebista honek zioenez, nola laguntzen duten horrelakoak.

O.N.U.k nazio guzietan beren presupuestatik ehuneko 0,7 herri gosetien alde eman zezaten agindu edo eskatu zien. Eta sei nazio bakarrik betetzen omen duete hori. Besteek "sentitzen" omen duete, baina ez omen duete horretarako presupuestorik... Hau lotsa! Erraz xamar esaten dugu "hemen ere bazion nahiko lan hara begiratu gabe!". Eta egia da hemen ere jende frankok nahiko gaizki pasatzen duela, baina goseak hiltzeraino ez behintzat.

Azkeneko gerra eta ondoko urteak igaro genituenok nahiko hurbiletik bizitu genuen gosea. Segidan doazen gertakari hauek nolabait agertzen duete nolakoak zen orduko gosete hura ere.

Gure alde hau baino azkroz lehenago normalizatu zen Frantzia, bai lan arazoan eta bai jatekoetan. Muga erabat itxia zegoen eta ez zen erraza beste aldera joatea. Hogeitalau orduko baimena bakarrik ematen zizuten hurbileko senideren bat hiltzen zenean, eta hau ere ez denei. Horrelako ez-beharren bat gertatzen zenean familia osoak galdetzen zuten baimena, beren dolu-minak agertzeko ez-ekiz, baita gogo haundit Frantziako ogi zuri edo hura jateko ere.

Behin batean Hondarribiko familia oso batek lortu zuen baimena eta aipatutako bi asmoek heldu ziren Frantziari hildako senideren etxera. Baina horra! Frantsesak nola hain zeremosioak diren, ezin buka-



tuzko prozesioa hasi zen auzoko adiskide eta lagunek beren dolu-minak agertzen zituztela, mugu eta negar, mugu eta negar, ezin bukatunik. Bitartean gure herriarrak goseak amorratzen eta halako batean, ezin bestean, ama altxa eta honela esan zuen: "Oraingoz aski eta atea itxi. Lemixi jantziun jan, gero berriz ere negar egingo dugu ta".

Bi ahizpa ere mixeria gorrian bizi ziren, eta ondorioz bietako bat ohean gaixorik galditu zen ahuleziak jota. Auzoko bat bixitara joan zitzaion eta honela galdetu omen zion: "Joxepa, zer? jateko gogorik bai?". Eta ahulezi joak, hil abotsaz: "Eijian, eijian na na". Bixitariak ezin inolaz ere konprenditu zer esan nahi zion eta ondo zegoen ahizpaz galdetu zion: "Miñon zer demontre esaten du 'eijian ta eijian na'?". Ahizpak: "ba, esaten ari da, 'ezin jan, ezin jan naña'". Ahulezi juak, buruari batera eta bestera eraginez, erabat larritua: "Eijian ta eijian na na". Ederki kostatu zitzaion gure bixitariari esan nahi ziona konprenditzea: "Ez izan, ez izan jana".

Gosearen agerpen hau gerra inguruko urteetan portuko mutil bati ere gertatu zitzaion. Jexki zen gure mutila lagunekin jolas-tera auzpegi larria eta bi eskuak ipurdi gainean zituela. Lagunek hala ikusirik galdetu zioten:

-Zer duk, kakilla oro zer?

Gizajoak sokazko gerrikoa askatuz ipurdiko masailak ubel-ubel eginak erakutsi zituen. Eta lagunek:

-Hara! Zeñek jo tlik taketako horiyek?

-Attak gerrikuakin.

-Zertik?

-Barbantzuak eltzetik hartzetik.

-Ta eskuak ez tlik erre?

-E. Inikiñ miño lenago hartu nittiken...

-Eltzitzen gogorrak?

-E, kakuesak pezalakuak!

-Eyaiz berriz itterra fango!

-Zertiko ez?

-Miñon zer nayago duk, barbantzuak taketekuakin oro barbantzorik ez eta taketakorik ere ez?

Oraindik bi eskuak ipurdi gainean zituela:

-Barbantzuak taketakuarekin.

Nonbait, gosearen taketakoak askoz gogorragoak dire...

Seriotasunera berriz itzuli eta, ez dut itxaropenik galtzen, borondate onez lagundu nahi ez dugun arren, behar bada egunen batean gehiegizko bizikera honek gure arnas biziltzarako dakarren hondamenaz jabeturik, askoz ere gutxiagorekin bizi daitekeela ikasiko dugula, guztiok hobeto bizi gaitezen...pa

Lerro batzuek idatzi edo irakurrita, ezin geldi gaitzeko gure buruari galdera bat egin gabe: Zer egin dezaket nik gaur eta hemen?

Ez nator inoren ikurrina zabaliduta. Guztiok zertxobait egiteko zentzua eta askatasuna badugularik, lur jota diren gizaki horiei altxatzen laguntzeko moduak eta bideak ez zaizkigu faltako.

Lourdes Zubeldia

DILUBIOA ALDREBES

Itun zaharreko Dilubioaren erreportaiak, bi zati nagusi ditu:

Bat: berrogei egun eta berrogei gaur iraun zuen uholde handi hark; izugarria izan zen; Noek pilotatzen zuen Arka-untzi handi hartatik lehorrik ez zen ikusten.

Eta bi: uholdearen aurkako erremedioa, lehorteaz izatea suertatu zen.

Orain artekoan Euskal Herria, uholdeetarako zuen joeraz zen ezaguna; baina gaur, uholde hura bera aldrebes gertatu baitzen, lehorte ari gara noztizen; hemen egindako zein pekatu larraren zigor ote, ez dakigu.

Hala, pentsatzen da, ez da zaila hau pentsatzea, aspaldian bizi izan dugun dilubioaren antzeko uholdearen hurren datorren lehorte dugula gaineen.

Gu ez gara itun Zaharreko Noe-ren denboran bizi, noski; baina munduan zikloak agintzen dutela egia bada, eta hau pentsatzea ez da inozakeria, gaur aspaldi hartako bidetik gure zeruko hodeiak abiatu ez ote diren pentsatzen jartzea ere ez da zozoke-ria bat.

"Jainkoak", dio orduko erreportaiak den Itun Zaharrak, "Noe, irla bakar, mugikor eta galdun geratu zela oharunik, haizaldia igorri zuen eta hodeietako euria gelditu egin-

zen.... Zazpigarren hilaren hogeita zazpigarren egunean, kutxa Ararat mendigainean kokatu zen. Hamargarren hilabeteraino, ura lurruntzen zihoin, eta hamargarrenaren lehen egunean mendi-tontorriak agerian zeuden. Beste berrogei egunen buruan, Noek ireki zuen berak kutxan egin zuen leihoa, eta bele bat igorri zuen, eta belea itenik, osteraka zebilen lurgainetik ura idortu zen arte. Uso bat ere igorri zuen, ura-lurgainetik urritu ote zen ikusteko, eta beste zazpi egun itxoginda itzuli zen hankan non jarri ez eta; berriro usoa kutxatik igorri zuen, eta hau aratsaldean itzuli zen, eta beste zazpi egunez itxoginda usoa berriz igorri zuen, eta ez zen oraingoan itzuli".

Aurkitu zuen lehorra.

"Seireun eta batgarren urtean, hilaren lehendabiziko egunean, lurrean ura idortu zen, eta Noek Arkaren sapaia jasorik, alde orotara begiratu zuen, eta lurgainean ura idortu zen. Ta bigarren ilabeteen, hilaren hogeita zazpigarren egunean lurra idorra zegoen."

Hondarribia gero kokatuko zen bazter honetan ere bai, noski.

Hau izan zen, garai hartako kazetariaren lana egiten zuen Noek idatzi zuena: "Dilubioaren hurren etorri zen lehorteak".

Ba orain arte Bizkaiko Golfoaren golkoan kokatu dagoen Euskal Herria orain gutxi arte Europako pixontzia deituko arrazoirik izan badute, laster Europako Solumen bezala jarriko ote zaigu modan?

Hori hala balitz, eta ez dadila gerta, gure mendiak gorrituko lirake, eta hemengo lainope eta lur hezetara eginak eta erdi ur garren animaliak eta personak, non biziko gara?!

Euskaldunok eguzkia bera baino nahiago baitugu kontrako itzala, eta zuhaitzen gerizpea bada, hobe.

Eta honetarako beharrezkoa den eguzki pitina nahi dugu, ez gehiago.

Bestela bakailoa bezala sikatuko gara!

Orduko kazetariak ez zuen garai honetako garen gutaz ezer esan, eta gaurko kazetariak igeri behar dena!

Horretarako dugu hileroko Hondarribia.

Martin Ugalde

MARTIN UGALDEREN BI LIBURUREN AURKEZPENA

Otsailaren 17an Martin Ugalderen bi libururen aurkezpenean egin zen Udaletxeko aretoan: "Batasun eta zatikaren artean" eta "Lezo Urreiztieta (1907-1981, Biografia)". Biak "Elkar" etxeak argitaratuak.

Aurkezpenean lehen hitzak Alfonso Oroz Alkateak esan zituen Udalaren izenean zorianak emanez Ugalderi. Ondoren Xabier Mendiguren idazle gazteak hitz egin zuen Elkar-en izenean. Martin Ugaldek ez zuela aurkezpenean behar esan zuen eta honen bazezaletasuna eta euskaldunen arteko lotarri

izateko eginahalak azpimarratu zituen. Gogo horren fruitu, hain zuzen ere, lehen liburua biltzen dituen artikulua dira, tituluak berak egiaztatzen duenez. Bertan "Zeruko Argia", "Argia", "Deia", "Diano Vasco", eta "Hondarribia" honetako artikulua jasotzen dira. Bigarren liburuan abenturero baten ibilerak ditugula adierazi zuen, kontrabandista, parrandero, liskarzaile, abertzale, ELA-ko sindikalista eta gerra garaian frankisten blokeoa itsasoz puskatzen asmatu zuena.

Bigarren hizlaria Karlos Santamaria izan-

go zela agindu zuten baina hark etortzen ez zuela izan eta Pello Zubiria kazetaria izan zen. Honek ere Ugaldez eta bi liburuez hitz egin zuen horrelako idazle eta lanen premia aiarrikatuz.

Azkenean Martin Ugalde bera mintzatu zen. Lezo Urreiztiaren notasuna aipatu zuen batez ere, eman ibilera batzuz eta kontrabandean berri emanez. Bukeararen dei egin zien gazteei galzorian dauden azken urletako historiaren aztarrenak bi ditzaten eta ikastetxeetan Euskal herriko historiari dagokion garrantzia eman dakion.

Hondarribiar multzo bat izan zen aurkezpenean Ugalderen itzalak erakarrita. Azkenean autografoak sinatu zituen Martinek hainbat liburuan. Liburu biak Hondarribiko dendetan aurki daitezke.


OHARRA

Aurreko "Hondarribia"-n (36.ean). Martin Ugalderen elkarizketan bi argazkiren oinarri gertatu ziren ezarri gabe. 7. orrialdekoan Martin Ugalde "El Nacional" egunkariko lehen saria jasotzen ari da Caracasen (1955), eta 8. koan, Caracasen ere, Jose Antonio de Aguirre Lehendakariarekin ari da hizketan (1950). Barka biezazkigute irakurleek inprimategiko huts baki.



Bidasoako arrainak eta moluskoak (1)

ANTXIÑABAK



Halaberharreko gertakari batek bidea eman dit herriko aldiakarian artikulua sorta bat idatzeko. Gaia, hemen ondoan, gure etxeetatik metro gutxitara bizi eta, hala ere, ezer gutxi edo batere ezagutzen ez ditugun arrainak eta moluskoak izango dira.

Joan den hilaren azkenetako igande goiz eguzkitsu batean Hendaiaiko kaian paseatzu nenbela, gazte bat, antzinan Bentako "kañoaren" ondoan egiten zen arrantza mota batez ari zela ikusi nuen.

Kainabera gogor batez balliatuz, muturrean pirila bat zuelarik, salabardo karratu bat, metro terdi luze-zabal, uretara botatzen zuten, erdian lastrea jarrita, boltsa eginez. Apejua hondoraino iristen zen, ertz batek kaiko pareta ia ikutzen zuela. Ongi beitatutik, hiru edo lau minutuero jasotzen zuten, dozena batzuk arrain txiki, behatz txiki bezalako antxiñabak eta antxiñabak harapatuz.

"Antxiñaba" deitura, ez du inon idatzirik ikusi. 1965ean marina merkanteko idazkari-zaordeak argitaraturiko "Nomenclatura oficial española de los animales marinos de interés pesquero" izeneko liburuaren ertzean nire aitak egindako ohar batean izan ezik, "Osmerus eperlanus" (horrelaxe bataiatu zuten Linneok) delakoaren gaztelaniazko deitura eperlan edo eperlano da, frantsesez bezala. Aipaturiko liburuak, hitz gutxi, honela dio ohar osagarrietan: "No existe en España".

Uste okerrak, maila ofizialetan, zenbaitetan, nolako ankeriaz aitzen diren erakusten digu. Neronek ikusia dut hemen bertan eta Santiañon harapatzen. Zuzenago dabil Roberto Lotina bere "Peces de mar y de río" liburuan honela diotenean: Europako Atlantikoaren itsasertze gehienean bizi da. Kantaurtik Noruegako hegoalderaino.

Ez du jasotzen, ordea, botikari jakintsu

bizkaitarrak, "antxiñaba" euskal deitura; "es-perlin" ezagutzen du berak. Laffittek ere bere "Ensayo metódico de un catá logo de los peces..." izenekoan, 1935ean argitaratua, ez du aipatzen.

Hala ere, "Larousse gastronomique"-k honela dio: "ur gezetan aurki daitezkeen arrain delikatuenetakoa." Goroexago, "ur gezetako arraina" definizioa zehazten du. Antxiñaba, izokia bezala, arrain anadromoa da. Hots, itsasoan bizi dena eta arrautzak ur gezetan jartzen edo erruten duena. Mota honek, zehazki, ur gazi eta gezen arteko mugan erruten du, horregatik gure estuarioa leku pribilegiatua da emeek arrabak hondo hareatsu, aloka eta harrietan uzteko.

Otsaila da hil egokiena antxiñaba sar-dak ibaian sartzeko, baina, kopuru txikiagoetan, urte osoan zehar ere aurki daitezke.

Lotinak diotenez mota honetatik, 10.000 tonela harapatzen dira urtean, gehienak Soviet Batasunean.

Sukaldean, antxiñabak bezala maneatzeko dira (neurri berdintsukoak dira), baina ezkat-trinkoa dute kendu beharrekoak. Haundien hezurra, 10 cm. luzerakoa, gogorragoa da, kendu gabe zaila iresten, baldin eta modu honetara prestatzen ez bada behintzat:

Eskaitek eta tripak kendu (azken hau erraz egiten da Hondarribiko arranketariak bezala eginez gero, burua kentzeaz batera barruko estekak aterata). Utzi, ondoren, ordubetek esne gazitan. Hirinetan pasa eta olio ugari frejitu, doratu ari. Etsan eta dut arrantzale hari antxiñaba biziak 15 franko ordaindu nikzila, kilo terdi pixatzen zuten boltsa batengatik?

Juan Jose Lapitz

NEGU EZA

Badago esaera zahar bat jendartearen oso ezaguna dena eta horrelaxe dioa: "Otsaila bero, negua gero". Etsan dezakegu Otsaila ezik negu guztia dijala gisa hortan-ze. Aspaldiko urteetan negu arinak ari gara igarotzen. Ez du hotzik egiten. Ez du hortaltzen. Elurraren usairak ere ez. Eta aurtengo hau guztin dugu aldrebes. Urteak izango dira ziuraski, Aiako harriak edo Larun kaskoa, egun batzuz bederen, txuri-txuri egin gabe ez genituela ikusten. Eta hemendik aurrera zaila egingo zaigu elur izipen bat ikustea. Badirudi, denborak uko egin diola ipar haize finari; uko egin diola kazkarabar eta euriri. Hegoa du gula gainen. Bien bitartean, baseritarrok sekulan baino kezkatuago gabilta.

Eguraldia aldatzen ari ote, galdetzen dugula. Horixe da jende askoren galdera, bai, denbora berean kezka ere delarik. Arrazoi horregatik edo, gobernu ezberdinetako 400en bat jakilun biltzeko dira datorren

Urrian, Ginebran. Pertsona hauek gizakia-erentzako eragin txarrak izan ditzakeen eguraldi aldaketak nola gainditu azerituko dute. Berauek diotenez, gizakiok jaurtitzeko dugun "gaskarboniko" dela medio 2.000garren urterako munduko balaz-bes-eko temperatura gradu 1 edo 2 igoko omen da, baldin eta neurri zorrotzak ez badira hartzen.

Ikus dezakezuenek, nekazariok etorki-zunean ere badugu zertaz hitzegiz, izango dugu solas egiteko atzakerik...

EHNE KEXU

Gipuzkoako Nazarien Elkarteak Udalete guztietara idatzia bat igorri du duela denbora gutxi, bertan labrantza etxeetan ikulu eta etxebizitzetan egiten diren obrer-egatik Udalak ematen dituen baimenak ez litzukeelakobratu behar edo gutxiago kobratu beharko lukeela adierazten da.

Argudio gisa zera esaten du: nekazari-

tzak pasatzen ari duen "krisia" ez dela nolankaria eta ondorioz, ezer gutxi balio dute-lia Jaurtitaritzi, Diputazioetik eta Bruselastik jasotzen diren dirulaguntzak baldin eta gero bertako Erakundeek, kasu hontan Udalete-keek, obrak egiteko baimena emateagatik ez dakit zenbat kobratzen jarraitzen badute. Horregatik, jasotzen diren laguntza horiek hein handi batean murriztu ez daitezten, ezer ez kobratzea edo bonifikazio handia egilea (% 90a etxebizitza babestuen moduan) obrak burutzeko lizentziagatik proposatzen du. Salbuespen honek, bigarren etxebizitzaren kasuetan ez lukela eraginik izango, gaineratuz.

Horra bada, baseritarren sindikatuek egiten duen eskakizuna, ene uestez ez dute arrazoi faltarik, nahiz eta azken bolada hontan "krisia dela eta ez dela", negar egiteko ohitura hau dextente zabaltzen ari den.

J. Bereau

BLAGAN

Behin batean, paisajearen edertasunak txorabiatu, nekazaritzak artzaintzak eta arrantzak, inori deus esan gabe, bilera klandestino batean elkar hartuta, Hondarribia gastronomiaren paradisu bihurtzea erabaki zuten. Iraila izango zen, noski. Eta iraila ere zen, 1934koa, Juan Jose jaio zenean.

Iraila joan eta iraila etorri, koskurtu egin zen mutilak eta San Nikolas kaleko eskolara bidali zuten Xagu-Bigotesekin letrak ikas-tera. Gustatu egin zitzaizkion letrak eta urte batzuk geroago idazteari ekin zion, eta zaz-

JUAN JOSE LAPITZ

J.J.L.: Orduan hasi ginen lehenbiziko aldiz neska-mutilak elkarrekin gauzak antolatzen. Garai hartan Oargi hasi zen herri guzietan eta hemen ere Oargi-Kerizpe sortu genuen. Orain Ama Guadalupekoa dagoen tokian genuen lekala. Lehenengo presidentea Luis Mari Amunarriz izango zen, eta gero ni, bizpahiru urtez.

H: Nolako ekintzak antolatzen zenituzten garai hartan?

J.J.L.: Biblioteka txiki bat jarri genuen, baguenen taberna txiki bat ere, ping-pong,



pi liburu egin zituen: "Anecdótico hondarribitarra", "Amar a Euskalerra conocindola. Laburdi, Benabarra, Zuberoa", "Manual de las setas", "Setas de Guipúzcoa", "Comer en Euskalerra", "La cocina moderna en Euskadi" eta aurten bertan argitaratu digun "La Cocina Vasca. Sus recetas básicas".

Bitartean, ordea, gauza asko gertatu ziren. Utz diezagion berari oharatu...

J.J.L.: Lehen ikasketak hemen bertan egiten nuten bederatzirte arteko bete arte. San Nikolas eta Juan de Laborda kalean zegoen eskola eta Xagu-Bigotes genuen maixu. Ez naiz haren izenaz oroitzen baina oroitzen ari naizen gogoan daukat ostrilero-ostrilero, arratsaldeko hiruretan, denok zutik jarri eta kredoa kantatzen genduela: "Creo en Dios Padre, todopoderoso... tatzun tatatzun", horrela, eritimoa eta konpasa ondo markatuz.

H: Eta ondoko ikasketak?

J.J.L.: Batxilleratoa Lekarotzen egin nuen. Hura bukatu eta Madridera joan nintzen, arktiketo izateko asmoz, baina asmo hutsean gelditu zen. Lau urte egin nifuen han eta gero Zaragozara joan nintzen eta handik itxera.

HERRI GIROA

H: Nolako giroa zegoen orduko gazte-rian?

kartak eta abar. Jende franko biltzen zen. Eraskusketak ere antolatzen genituen. Batean lan tresnak eta horrelako gauzekin. Jende asko etorri zen esposizioa ikustera, Hondarribia guzira eta Irundik ere bai. Beste batean "Fuenterrabia Ciudad jardín" erakusketak antolatu genuen Hondarribiko argazkiak, lore eta zuhaitzak. Domintxeneatik ekarrita. Lehiaketak ere antolatzen genituen. Bat Baxurkoren omenez. Gora-beherak izan ziren. Polizia etorri zen esanez hura oso euskaltzalea sinifikatua zela eta ez dakit zer eta ni jarri ninduten erresponsible dezoder gertatzen bazen ere.

H: "Ondarribi" aldizkaria ere ateratzen zenuten. Hura izan zen herriko lehen aldizkaria?

J.J.L.: Lehenengoa ez. Gerra baino askoz lehenago, 1915 edo 20an, zen altaren osaba batek, Markos Lapitz, "Ecos del Jaizkibel" ateratzen zuen, eta hori izan da hemen Hondarribian lehenbiziko publikazioa.

1958 inguruan Jabier Aranburu eta biok "Ondarribi" egitea pentsatu genuen. Orduan baimena lortzea ez zen erraza baina Elizaren babespean bai, eta nola Oargi elizaren zera bat zen, ba, hasi ginen. Fernando Arto- la laguntza izugarria izandu zen bere ideiekin eta abar. Hamabostekaria zen eta 35 ale ateratzen 1958ko martxoan. Hama-

sei hilabete iraun zuen. Herriarekin eta elizarekin sartzen hasi ginen eta isluak ere izan genituen bikarioarekin, Don Karlos Pikasarrerekin...

H: Kontestatario xamarra zen, ala?

J.J.L.: Klaro! Bueno... kontestatario... garai haietan izan zitekeen neurrian, Adibidez, parrokoari esatea ondo zegoela sermoiak eta imakuladari nobenak egitea baina monagiloek ere sgtana lizeak beha zituztela, ez belanetarainokoak bakarrik. Beste batean Amaberjaren kaparena gertatu zen, kapa kentzea eta ez kentzea... Pikasarrerekin kendu egin zion. Irudia Donostiaran eraman zuten konpotzera, pintatzera e.a. Eta etortzean, kaparik gabe! Kristona! Jende asko dirua emana zela kapa erosteko, ta ez dakit zer ta badakit zer. Orduan "pacto de silencio" bat bezala egin genuen Pikasarrerekin: ez genduela egingo ez alde batera, ez bestera. Guk gure lanarekin aurrera segituko genduela eta kitto. Jailetan numero berezi bat ateratzen, orain egiten bezala, eta Pikasarrerekin irudi bat bidali zidan argitaratzeko esanez, eta nik ezetz esan nuen, eta berak argitaratu egin behar behar zela. Argitaratu genuen, bada, baina azpian ez dakit zer jarrita. Horrekin bagenekien Don Karlosek baimena kenduko zigula eta aldizkariaren agurra ere publikatu genuen. Hala ere, ez zigun baimenik kendu. Hurrengoan Alkatearekin sartu ginen...

H: Nolako tirada zuen?

J.J.L.: Bostehun ale, uste dut. Asko kanpora bidaltzen genuen. Ehun eta piko izango ziren kanpoko suskizioak. Dendek ere laguntzen zuten. Ale berezi bat Kofradiarena egin genuen. Alkate zaharrak Kai Berria Asturiagan egin nahi zuen eta Kofradiak ez zuen nahi. Orduan numero berezi bat egin genuen eta Kofradiak oso ondo ordaindu zuen. Igual bi edo hiru numerotarako.

H: "Belen viviente" antolatzen ere ibila zara...

J.J.L.: "Belen viviente" frailean gauza bat izandu zen. Lehenbizikoa Hermendadeko arkuan jarri genuen, xakota, behiren bat astoa, San Jose, Ama Birjina, e.a. Bigarrenean egin genuen herri baten desfilea naximentera adoratzera doalarik. Hartatik ateratzen zen "el día del niño" eta murrura ekarri genuen. Ute batean Egiptoko ihesa ere egin genuen, Kale Nagusitik, soldadu errotatarrak jarri genituen kastiletan horretan, Ama Birjina astoan, e.a. Auto Sakramental bat ere egin genuen eta hura ere oso ondo ateratzen zen. Murruren beste aldean, zezek plazaren parean. Udan.

H: Kontzejala ere izan zinen...

J.J.L.: Francoren denboretan lehenengo okasioa udalekoetan nolabait sartzeko "tercio" bidez izan zen. Hiru tercio zeuden: familiarra, sindikala eta kulturala. Libre bakarria familiarra zen. Presentatu nintzen edo hobeki esan presentatu ninduten eta "a la contra" sartu nintzen. 64tik 71 arte, zazpi urte haietan la beti aurka ibili behar izan nuen. Ez zen egoera goxoa, baina nik neuk asko ikasi nuen, besteak beste neure burua

7 kontrolatzen.

H: Nor zen alkate?

J.J.L.: Casadevante, eta gero Periko Aginagalde.

H: Biekien katazkan?

J.J.L.: Casadevanterekin askoz gehiago. Berak igoi egin nahi zuen eta Diputazio-ra joan. Denbora gehienean Donostian bizi zen. Desastre izan zen nere uestez. Gainera orduko ahalmen ekonomiko oso urria zen: 1971ko presupuestua 16 milioitakoa izango zen.

H: Gero "padres de familia".

J.J.L.: Padres de familia-koa askoz politagoa izan zen. Otsailaren hartu nuen kargua eta lehendabiziko reuniuan adinekoentzat oporrak antolatzea proposatu nuen. Eta iraolak esan zidan "baina hori hemendik bi urtera egiteko izango da, ezta?". "datorren Aste Santurako" erantzun nion, Deitu nion Benidormeko bikarioari aber etxe bat diru gutxierekin lortzen genuen... Bai seguituan lortu ere! Bederatzi lagun kabitzen ziren, hamabost egunerako. Hiru kotxe behar genituen. Bijaie bat egin, jendea eraman eta hutsik etorri, bigarren bijaie eraman eta egun berean besteekin etorri, Benidormetik, e! Eta hirugarrena hutsik joan eta jendea handik ekarri.

Orduan esposizio asko egiten zituzten hemen eta hurrungo udan esposizioz esposizio joan eta bakoitzari koadro bat eskatu genion eta haiekin beste esposizio bat montatu genuen. Lehen kolpetik 400.000 pezeta-tiki gora alera genuen. Horrekin hotel bat hartu genuen, hotel Condestable, dena gutretzat. Hamar urtez edo ibili gara hori egiten. 1971tik edo 81 arte. Beste gauza bat Goiazko kolonia izandu zen.

KAZETARITZA

H: Zer dela eta, hasi zinen idazten?

J.J.L.: Nola ez nuen arkitekto izaterik lortu, orduan mili egin eta segituan supermerkatuarekin hasi nintzen. Orduan supermerkatua nobedade bat zen eta denda guziki kontra zeuden, baina ez hemen bakarrik, leku guzietan. Eta orduan hasi nintzen periodiko batean idazten, "El comestible". Komertzioaren arazoez eta produktuez idazten nuen. Asko ibiltzen nintzen batetik bestera produktuak ikusten eta ekartzen: Galiziara, Oportora, Valenciara... Horrela produktuak ezagutu nituen eta horretaz idazten nuen.

Baina momenturik bereziena 1974ean izan zen. Egun batean Jabier Aranburu eta biki Andorrara joan ginen. Bidean oso gaizki ibili ginen, eguraldi txarra, elurra izugarria, eta han blagan, blagan, blagan, bera "La Voz de España"n ari zen lanean eta zera esan zidan: "zerbait idazten hasi behar duk". Azaroaren 7a zen eta artikulu txiki bat bidali nuen: "Año de xipirones, año de bienes". Ni, Madrideko errebista haiekin ohitua, bidali eta hurrengo hilabetearen atzeratzen... Handik bi egunera, bederatzian, Donostian lan egiten eta, joñol lagun batek esaten dit "¿cuando le ha dado a ti por escri-

bir?", eta "Zer ba?", "Si hay un artículo tuyo en el periódico". Hura poza! Poz izugarria! Eta segituan beste bat egitera: taka-taka-taka-taka. Beste batean Felix Morenoren deitu zidan eta esan zidan "Hombre, tú tienes que escribir más" eta azken orrialdea eman zidan nahi nuena idazteko. Orduan hasi nintzen Fernando Artolearekin beste aldeko ibilaldiak egiten. Hamar kolaborazioaren proiektu bat egin nuen, Lehendabizikoan mapa bat non den Laburdi, Behenafarroa, e.a. adieraziz. Hamar? Ehun eta hogeita piko kolaborazio egin nituen. Hortik atera nuen bigarren liburua "Amar a Euskalherria conociéndola". Horrela hasi nintzen idazten...

H: Eta nola hasi zinen gastronomiak kazetaritzan?

J.J.L.: Orain hamabi urte "Deia" hasi zen eta Jabier Aranburu hara pasa zenenean berarekin joatea eskaini zidan; baietz esan nion. Orduan "Kepa Kaizar" sinatzen hasi nintzen. Hiru edo lau hilabete pasata, proposamen bat egin nion Jabierri: argazkiak atera eta "La Voz"eko gauza bera egitea, baina motzago. Argazki bat jarri eta argazkiaren azpian komentario txiki bat, eta beti beste aldekoa. Beste proposamen bat, egutegi gastronomiko bat egitea izan zen. Hori aditu diretoarek eta segituan aber zer zen hori. Eta horrela, hamabi urtetan igande bat ere huts egin gabe.

H: Bordari aipatu duzu...

J.J.L.: Bordari denbora luzean Beloken egondo zen, andrea ere beste aldekoa zuen eta ondo ezagutzen zuen hura dena. Kobean joatea proposatu zidan. Berak jende eta toki asko ezagutzen zituen Xalbador, Mattin, eliza trinitarioak... Pertsonak, lekuak, erakusten zizkidan eta orientazio piska bat eman ere bai, jendea Euskal herria, aberria, ezagutzera animatu behar nuela alegia. Lagun handia izan nuen horretan.

Gastronomia gaietan Busca Isusi izari nuen maisu eta lagun. Prestakuntza bikaina zuen, natur zientzietako karrera egina bait zuen, biologia sailean.

Eta luzaz jarraitzen dugu Juan Jose-rekin hizketan hemendik kanpora dituen ha-

rremanez. Egun batean Donostiako Campo Viejo-koek, Busca Isusi osasunez makal zegoela eta, Europa aldean bidaia bat egitera inbitatu zuten Rhin, Alsazia eta Mosela eskualdeetara. Horri eskerrak harreman berriak lortu zituen gastronomo ospetsuekin, Jos Carlos Capel, Luis Bettónica, Xavier Domingo eta beste hainbatekin. Handik aurrera batetik eta bestetik hasi zitzaizkion etengabe kolaborazioak eskaltzen.

Gastronomiaz aritzea lan atsegina dela aitortzen digu. Paraje eta pertsona asko ezagutzen dituzu, lagun handiak egiten nonnahi, eta halakoen harremanak oso onak izaten omen dira. Ez omen dago bestetan izaten diren txoke eta kompetentzia antzurik. Parisa, Nueva Yorkera eramaten zailtze produktoren aurkezpenetara eta horregatik ez omen duzu initzia emateko askatasunik gaitzen; aurkeztu dutena gustatzen ez bazaizu, lasai esaten duzu, eta ez da ezer gertatzen.

Euskal herriko Kofradian egiten dituzten lan ugarienez hitz egiten digu eta Euskal telebistarako prestatzen dituen gidioez. Hamai-ka kolaborazio dituz zintzilik, erabat lanpetua dago, ezin da denetara iritsi.

Azkenean, behin baino gehiagotan Hondarrirako egin duen proposamena gogoratzen digu. Hondarrirain oso jatebxe onak daude, baina ez dira kanpoan behar bezala ezagutzen. Propaganda hori lortzeko urteko feria bat antolatzea proposatu du Juan Josek, Euskal herriko artisauro produktuekin. Zaazi probintzietako produktoren erakusketak, piper, alkatofa, konfite, txorizo eta arrain kontserbak nola egiten diren erakutsiz, adibidez. Ongi pentsatuta eta antolatuta, urteik urtera hobetuz eta zabalduz joango litzatekeena. Jendetza handirik ez dagoenean egitea proposatzen du, uda hasieran edo jaiak pasatakoan...

Telefonoak jotzen du. Renoko ikasleak Euskal herrian dabilitza euskara eta euskal kultura ikasten. Berak sukaldaritza irakasten die... Horretaz ari da Juan Jose telefonoz eta horretan uzten digu, gaurko...

J. A. Letamendia
Txomin Sagartzazu

ESKOLAZ ESKOLA

HONDARRIBIKO IKASTOLA

BISOIEN LARRU GOXOA ETA LETAGIN ZORROTZAK

HONDARRIBIKO IKASTOLAKO 5. mailako guztiek iteera bat egin dugu granja edo tegi bat ikustera, bisoitagi balera hain zuzen.

Denak animalia horiek ikusteko irrikitan geunden. Hara joan baino lehenago andereñok eskuekin kontuz ibiltzeko esan digu, oso letagin zorrotzak dauzkatelako.

Bisoiak ikusteko lau talde egin ditugu. Berrehun bat bisoi daude guk ikusi dugun tegi horretan, marroiak eta beltzak.


Oso politak, goxoak, arinak, ikusgarriak, bizkorak eta azkarak dirudite baina ez da egia. Animalia gaiztoak dira, oso gaizto eta arriskutsuak. Kontu haundia izan behar da buedekin. Lau letagin zorrotz dituzte. Noiz-bait ikustera joaten baldin bazarete, kontuz ibili!! Ez hurbildu!! Autziki egingo dizute!

Larru goxo goxo dute baina ezin zaie ukitu, letaginekin koska zorrotz egiten dutelako. Behatza harrapatu ezkerre, ez dizu utziko puska kendu arte, txe txe egin arte.

Jateko nahasketa arraro bat ematen diete, beraietzako berezia: haragia, arraia eta zerealak nahasiak. Oso usai txarra du.

Erateko berriz, kaiola ixkinean botoi txiki bat dute eta ura eran nahi dutenean, hori zanpatu eta ura aleratzten zaie. Beuden kaiolak burnizko sare goxoak dira eta aurreko aldean egurrezko beste kaiolatxo elkartua dago. Egurrezko hau bisoiaren etxetxo bezala da. Han ibiltzen dira beuden etxetik sartu eta aterai! Inor ez da ausartu bisoiaren txabolatxoaren tapa altxatzen...! Gizonak lagunduta, ausartaren bat izan da gero.

Eskuben marroiak daude eta ezkerrean beltzak. Larru politenak dituztenak gorde-



tzen dituzte umeak egileko. Urtean behin umatzen dira. Martxoan jartzen dituzte arra eta emea elkarrekin eta bi halabetetara, Maiatzean, jaiotzen dira bisoi kumeak.

Tegian zaindu ondoren, Abenduan hiltzen dituzte larrutzeko.

Beren larruarekin larruzko berokiak egiten dira. Berrogei inguru behar dira beroki bat egiteko. Kokotzean ebaki bat egiten diote eta larruari buelta ematen diote kaltzetinari bezala. Kendutako larrua izoztu eta Barzelonara bidaltzen dute larrua ontzeko, kurtitzeko. Horrela prest dago berokiak egiteko.

Bisoiaren haragia jan daiteke baina desatsegina da jaten duen janariaren gustoa hartzen bait du.

Guri larru ondu bat erakutsi digute. Goxo goxo da. Hango gizonak bisoiaren larrua erakutsi digunean, gure gelako batek susto haundia hartu du, bisoi bizia zuela uste izan du ta.

Pena da biziak ez eskuetan hartu ahal izatea... hain goxoak dirudite!!!

HONDARRIBIKO IKASTOLA
5. maila

BIDASOAREN INGURUNEA

Bidasoaren ingurunea aztertzen ari garenez, Bidasoa ibai, iturburu eta bere inguruak ikustera joan ginen.

Bidea ez genekielako gidari bat eraman genuen. Gidariak Rafael du izena: Rafael Jaitetxeko nagusia.


Autobusez joan ginen eta herri hauetatik pasa ginen, ibaiak itsasoratzten den Hondarribiatik abiatu eta iturbururaino ibaiaren bide osoa ikusiaz: Hondarribia, Irun, Behobia, Bera, Urriozkietia, Igantziko Benta, Sunbilla,

Narbarie, Oronoz, Oyeregi, Arrayoz, Irurita, Elizondo, Bozate eta Errazu.

Izpegi mendateraino iritsi ginenean, onenez abiatu ginen pagadi ederrak zeharkatzu.

Elorrietan, Bidasoaren iturburuak eta harrispila edo kromletxak ikusi genituen. Bertatik ikusi genuen paisaia zorogarria zen benetan Aiako Harriak, Gorramedi, Larun eta Pirinioak begien bistan genituen.

Gero Erratzura jeitsi ginen eta frontoi on-



Shooshian usjwun

loan bazkaldu genuen.

Bazkal ondoren, frontoia irekita zegoenez, batzuk frontoian harrapatzera jolastu ginen, beste batzuk kulunpiotan gelditu ziren.

Pixka bat deskantzatu eta beste ibilaldi bat egin genuen, Gorostapolo auzotik pasa eta errekarera iritsi ginen; jende ugari erori zen uretara.

Errekaren beste aldera iritsi ginenean "Shoroshin" urjauzia ikusi genuen eta oso polita zen.

Nahiz eta ibai txiki bat izan, Hondarrabi-raino iritsi arte erreka edo isurkide hauen urak jasotzen dituz gure Bidasoak:

Arana, Autza, Arenea, Amaiur, Baztan, Artesiaga, Ziga, Belate, Donamaria, Ezkurra, Etxalar, Latza, Omin, Cia, Endara, Arlia, Jaizubia eta Txiplau.

Benetan merezi zuen joatea asko ikusi eta ikasi genuelako.



PIRU-MIRU LEHIAKETA (I)

Aurreko zenbakian aldi honetako azkena izan zen eta, egia esan, oso asmatzaile gutxi izan dugu. Literaturazko galderak zirenez gero, institutoko bi ikasle saiatu bakarrik ausartu dira erantzunak bidaltzen: Alaitz Agirre, bestetako irabazle azkarra, oraingo lehiaketa honetan azken deialdira arte animatu ez zaiguna, eta Imanol Garmendia aldi honetan sailkapenaren lehen postuari heldu zionetik beti aurrean izan duguna.

Bion erantzunei eskerrak honelako gauza ikasi ditugu:

1) Hondarribian XVIII mendean mediku lanetan aritu zen idazlea Joanes Etxeberri Sarakoa zela eta "Lau-Urdin Gomendiozco carta edo guthuna" (1718), "Escuararen Hatsapenac" (1716?), "Escual Herri eta Escualdun guzbiei escuarazco hatsapenac latin icasteco" izeneko liburuak, eta euskara, latin, frantses eta gaztelaniazko hiztegi bat idatzi zihuela.


2) "Intza Begietan" olerki liburua Klaudio Sagartzazu "Satarka" idatzi zuela.

3) Argazkian zetorren bertsolari idazlea Juan Basurko Ansoa "Baxurko" zela, lanbidez arotza edo zurgina.

4) "Bordari"ren lanak biltzen dituzten liburu lodiek "Bakotzak berea" izena dutela.

5) Azken "Jon Mirande Saria" Martin Ugaldek irabazi zuela "Itzulera baten historia" nobelarekin.

Haur bitzate biok, beraz, IV. deialdira



dagozkion bost puntuak, ongi mereziak dituzte eta.

Piru Miru bonolotoan asmatu zuela eta, bolada honetan aski aberats dabilkigunez puntu bakoitzeko 500 (bostehun) pela ematea erabaki du, beraz, honelako puntu eta sariak doaz (okerriz balego, erreklamazio epea 2.000 urtera arte bakarrik dagoela irekia gogoratzen dizuegu).

Alaitz Agirrek, Jaione Yarzak eta Jon Letamendiak, bosna puntu dituztelarik, 2.500 pezeta jasoko dituzte, Iraitz Arruabarrena, Aritz Lopez eta Nerea Lopezek, hamarna puntuz, 5.000 pezeta bakoitzak. Eta Imanol Garmendiak, 20 puntu lortu dituzenez, 10.000 pezeta.




Eta ekin diezaiogun aldi berriari, aste Santutik jaiek arte.

Lehen deialdi honetan bost arrainen marrazkiak dituzte. Bakotzaren zenbakia aipatuz, bi gauza esan behar dituzte: a) arrain horri Hondarribian ematen zaion izena, eta b) zein sasotian eta nola harrapatzen den.

Erantzunak martxoaren 22rako bidali behar dituzte **UDALETXEA** bidez.

"PIRU-MIRU" lehiaketa
Euskara Kontseilua
UDALETXEA
DALE Nagusia
20280-Hondarribia

JAIZKIBEL SUTAN



Jaizkibel dut izena. Mendi txiki eta estua naiz. Huguere muturretik abiatu eta Pasaiaiko porturaino luzatzen naiz.

Alde bat Kantauri itsasoko olatuek miatzatzen didate, baita zenbaitetan kupidarik gabe eraso ere; beste aldea, berriz, zelai berdeetarako jaisten da baserri txurien kokaletara bihurturik.

Hirugarren Aroan sortu nintzen, Eozeno aldian; beraz, 65 milioi urte omen ditut; ez da gehiegi ni bezalako mendi batentzat. Multzo lodietako harearri oratua naiz, eta nere sabeletik zati lodiak garraiatu zituzten Hondarribia eraikitzeko: Murrua, Karios V.aren Gaztelua, Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren Eliza eta zenbait jauregi dotoretarako ere bai. Nere harriak Irun, Oiar-tzun, Errenteria, Donibane Lohitzune, Baiona eta beste hainbat lekutara ere eraman zituzten, Hiriko artxibategian gordetzen diren baimenek egiaztatzen dutenez.

Duela gutxi, Guadalupeko gurutzea egiteko behar zen harri ikaragarria atera zidaten Arriestuetako arbotik; 1936ko abuztuaren 18an bota zuten gurutzea, alegia. Harri hura ateratzeko 150 gizon behar izan ziren eta 25 idi pare.

Nere erriaitetik sortzen diren iturburu ugariak antzinatek eragin zieten herriesiatik landa zeuden errotoi, piskanaka piskanaka galduz joan diren errotoi.

Hondarribiarena izan nintzen, baina gaur egun Hondarribia, Lezo eta Pasaia Donibanerena nauzue.

Nere axalean, besteak beste, arkazi, haritz, gaztainondo eta pinuak landatu zituzten. Baina ugariena belar xehea zen; behi, behor, ahuntz eta ardi larreetakoa. Ugariak ziren ere osasunbelar sendagarrak, ehundik gora mota ezagun, diotenez.

Amets ere egin izan dut egunen batean dena zuhaitzez betarik egongo naizela; ametsa, ordea, gero eta zailago da egia bihurtzen.

Zuhaitzak landatzen zizkidaten baina berehala desagertzen ere bai, nola ez dakigula sortutako suak suntsitunik.

Pozik nengoen 1963gn, urtean, zati batean pinu ederrez estalia nintzela eta, urte gubixen buruan ametsa lortuko nuen ustez. Ametsak, ordea, martxoaren 6an huts egin zidan, iltas aldetik, Pasaia eta Lezo inguruan sute bat sortu eta haizearen eraginak zabaldu pinu eremu zabalak erre zirenean. Sute beldurgarri hura, eginahalak eginagatik, ezin itzali izan zuten egun terdri igaro arte. Guztiz soldua geratu nintzen!

Urteak igaro ziren. Egun batez haur oihu eta farre-algarak entzun nituen neure inguruan. Hondarribiko eskolaumeak ziren, "zuhaitz eguna" ospatzen hasita. Hau dela eta lizar batzuk landatu zituzten. Norbaitek, ordea, ez zuen zuhaitzak hazterik nahi eta "ustegabeko" suteek erre egiten zituzten.

Egun batean aitzurkada bortitzak nabatu nituen neure bizkarrean eta pozaren penez birlandatzen ziren zitzaizkidatela ikusi nuen: haritzak, izaia, altzak, gaztainak, lizarak, urkiak, gereziak, elorriak...

Zuhaitzez estalia egoteko ametsa berpiztu zen nere baitan, baina, badirudi zontxarrak ez didala barkatzen.

1989gna, oso urte lehorra izan dugu. Abendua izan arren uda garaia zirudien. Aspalditik ginen euririk egin gabe. Sastraka iharrez eta orbelez estalia ninduzuen. Haze goa maiz genuen bisitari. Egun gutxi falta ziren urtea amaitzeko eta, 1963an beza-laxe, Pasaia aldetik sortutako sua berehala zabaldu zen. Abenduaren 14a zen eta hiru egun luze iraun zuen. Nahita eragina? Halabeharrez? Egunen batean jakingo dugu, agian.

Toki batean itzalia zegoela zirudienean, beste muturrean agertzen zen sua, eta aldi berean han eta hemen. Zaila da halabehar hutsez gertatzen zela sinistea.

Izugarria da nork bere burua alde guztietatik sugarrez inguratua ikustea, ezintasunean deus egiterik ez duzula, baserriak arriskuan eta bertakoen bizitzak ere galtzeri gorrion.

Estuasun larritz ikusten nuen sua, zuhaitzak errautsez gero, etxetara hurbiltzen Farroaren inguruetan, hiru egunez egon bainintzen suharturik, Pasaiaik Faroraino sugar ikaragarri bihurturik.

Ikusizun latza bezain beldurgarria. Baserritarren, udal langileen, herritarren, suhiltzaileen eta itzalze lanetan laguntzera hurbiltzen ziren guztien eginahalak ikusten nituen eta haien ezina ere bai. Ez zuten etsi, hala ere, eta azkenean sua menderatzea lortu zuten.

Nere gainera begiratu eta ikusitakoak negarra eragin zidan. Sutearen ondoan berriro gelditu nintzen bihurtu eta beltz. Gaztainondoak, lizarak, izaia, altzak, pinuak... denak erre eta kixkali ziren.

Bukatzeko, bi galdera egiten dizkizuet: sute honek, nori egiten dio kalte? Nori mesede?

1990ko Otsailaren 15ean.
SORKUNDE



IZEN BERRI GEHIENAK, EUSKARAZ

Haur batentzat izena aukeraterakoan kontutan hartu behar da bizitza osorako jartzen zaiola, ero ez bait du aldatzen izango, horretarako arrazoi bereziren bat ez badu behintzat.

Aukera hori egitean modak eragin handia izaten du, baina Euskal herrian politikak ere izan du zenikusia. Garai batean euskarazko izenak jartzerik ez zegoelako jende askok bi izen zituen, bata ofiziala (gaztelaniazkoa) eta bestea lagunartekoa (euskarazkoa).


1977ko urtailaren 4ean onartutako lege bati esker euskarazko izenak jar litezke eta ez hori bakarrik, bi izen zituztenek ere, etxean eta kalean Joseba eta Nekane deitu arren ofizialki Jose eta Dolores zirenak alegia. Erregistroan aldatu eta beuren agirieta euskarazkoa jar dezakete. Lege hori

alera zenetik Hondarribian 343 aldaketa egin dira.

Bestalde gaurren haurrei izen bat bakar jartzeko joera da, badiudi garai bateko izen konposatuak ez daudela modan edota emakumezkoiei aurretik MARIA jartzera ez dutela behartzen, hala ere aldaketarik nabarmenena hizkuntzarena izan da. Hondarribian 1988an 121 haur jaiotzen zirela eta 1989an 84 haur jaiotzen zirela eta 66 izan dira euskarazko izena jarri zaienak.

Ondoko zerrendetan ikus daitezke nolako aldea dagoen orain dela 40 jartzen zirene eta orain jartzen diren izenen artean.

Hondarribiko Erregistroan agertzen diren lendaiziko 15 izenak:



1950koak	1960koak	1970koak	1980koak	1990koak
Fausto	Angel Maria	Maria Nieves	Huntz	Ana
Jose Ramon	Maria Dolores	Maria del Pilar	Esteban-Gervasio	Oihana
Luis Maria	Marcos	Miguel Angel	Leire	Samuel
Rafael	Angel Maria	Maria	Lierni	Aitor
Maria Teresa	Jose	Iciar	Arkaitz	Manex
Maria Carmen	Bernardo	Carlos	Olatz	Alvar-Melcart
Maria Concepcion	Maria Rosario	Ricardo	Vanesa	Iñigo
Maria Magdalena	Eduardo	Miguel Angel	Egoitz	Eider
Maria del Carmen	Maria del Rosario	Eskarne	Mikel	Maria
Maria del Carmen	Maria Victoria	Angel Maria	Oihana	Martxel
Jose Maria	Maria Guadalupe	Maria Francisca	Jokin	Aitor
Maria Guadalupe	Margarita-Susana	Jose Ignacio	Agurtzane	Olatz
Josefa	Jose Luis	Maria Belen	Alaitz	Borja
Jesus Maria	Pascuala	Luis Miguel	Lamara	Alvaro
Maria Concepcion	Angel Maria	Koldobika	Maidor	Usetxe

DEMOGRAFIA

JAIOTZAK

URTARRILA

- 16an: MANEX Aldai Eizagirre
Gurasoak: Nicolas eta Iazkuna
- 18an: ALVAR-MELCART Gutierrez Pino
Gurasoak: Ceferino eta Alicia
- 21an: INIGO Agote Goienetxea
Gurasoak: Iñaki eta Elena
- 25an: MARIA Igos Martinez
Gurasoak: Juan Antonio eta M.^a Teresa
- 28an: EIDER Palacios Garmendia
Gurasoak: Alfonso eta M.^a Guadalupe
- 30an: MARTXEL Oronoz Gorrotxategi
Gurasoak: Dominga eta Amaia
- OTSAILA
- 1ean: AITOR Susperregi Iriondo
Gurasoak: Jose Manuel eta Estibaliz
- 2an: BIXEN Carda Etxarri
Gurasoak: Vicente eta M.^a Jose

HERIOTZAK

URTARRILA

- 24ean: Andres Goikoetxea Ortiz 70 urtekoa
Santiago Konpostela Kalea 4.
- 28an: Rosario Miguel Bermejo 81 urtekoa
Bidasoa Kalea (Elizondo Etxea)
- 28an: Juan Pascual Gunbaio
San Pedro kalea 77
- 30ean: Maria Olaskoaga Camino
Lur - Gorri

OTSAILA

- 3an: Jose Manuel Arburua Elizagoien 81 urtekoa
Kosta Auzoa Intxaurdi Etxea.
- 8an: Toribia Urizarbarrena Urizarbarrena 80 urtekoa
Santa Engrazia Auzoa.
- 8an: Santiago Busto Alzoriz
Sokoa
- 13an: Kose M.^a Mujika Oiarzabal 64 urtekoa
Mendelu Auzoa (San Isidro Etxea).
- 15ean: Pedro Pelaez Coloma 91 urtekoa
Santiago Konpostela Kalea 5.

- 3an: OLATZ Gonzalez Cuenca
Gurasoak: Pedro eta Josefaa
- 5ean: BORJA Goikoetxea Zaballa
Gurasoak: Ignacio eta Miren Gurutze
- 5ean: ALVARO Hurtado Usoz
Gurasoak: Mikel Angel eta Elena
- 15ean: USETXE Mendikute San Miguel
Gurasoak: Santiago eta M.^a Teresa.

EZKONTZAK

URTARRILA

- 27an: Juan Miguel Txapartegi Zamora,
Hondarribikoa eta M.^a Mercedes Arozena Miranda, Hondarribikoa
- 27an: Luis Unzueta Salvador, Hondarribikoa eta M.^a Victoria Lazkanotegi Gonzalez, Hondarribikoa.

OTSAILA

- 10ean: Jose Luis Fernandez Mateo, Hondarribikoa eta Almudena Iñiz Piris, Hondarribikoa.
- 17an: Constantino Virto Agirre, Hondarribikoa eta M.^a Teresa Lapitz Senosian, Hondarribikoa.

(lehen orrialdetik)

Kirol kaia leku horretan kokatzeko lehen asmoa ez da oraingoa. Kai Berriko dikea Luzan, Udalaren arkitekto redaktoreak, bosgarren aukera bat proposatu zuen Donostiako bilera bertan.

Zer esan dezake horren aurrean Hondarribiko herriak? Aski gai konplexua eta korapilatu da goizetik gauera eta bi hirtzen erabakitzeko. Era honetako obra batek eragin itzela izango du, zailtzen gabe, etorkizuneko herriaren bizitzan eta plangintza orokorrean.

Arazoa, oso bestela planteatzen da Portu Zuzendartaren eta Hondarribiaren ikusmoldeak begiratu. Portu Zuzendartak, portuak egiteaz arduratzen da soilik, horixe bait da bere zeregina; bestelaz ez daki ezer; ez bait da bere eginkizuna. Berak, bere ikusmoldeak, Getarian, Hondarribian eta egoki denitza lekuetan kirol-kaia egitea planifikatzen du eta, berez, herriaren plangintza orokorra ez zaio ardura. Eta, horrela ez duela jokatu espero bada ere, nahi balu, Udalaren baimenik gabe ere egin lezake kaia.

Udala, jarreraz, ez dago Hondarribian kirol-kai bat egitearen aurka. Gauzak zentzu onez eginez gero, mesedegarri ere izan daiteke herriarentzat. Zein da, ordea, Hondarribiari komeni zaion kirol-kaia? Nolako?

Oraindik ez dago proiektu finkorik eta ezertan hasi baino lehen Eusko Jaurlaritzak lau alternatiba proposatu ditu.

Lehen proposamenaren 738 kirol ontzi sartuko lirateke zela eta kaiak 53.000 m² litzuke. Metro horietan ur zabalerak bakarrik hartzen da gogoan, ez kai inguruak. Bigarren proposamenaren 758 ontzi eta 63.000 m² aipatzen dira. Hirugarrenaren (handienaren) 800 ontzi eta 72.000 m². Laugarrenaren 760 ontzi eta 74.000 m². Horretarako, 6, 8 eta 10 metroko kirol ontziak kalkulatu dira. Horretaz gainera, inguruak, taler bikiak, alimenezak, grua, dendaren bat eta bestelako zerbitzuentzako lekua behar da. Eta 400 berebilentzako aparkalekuak, pribatuak, kirol-kai hau, besteak bezala, pribatu baliatzeke. Autofinanziatu dadin asmoa dago

eta horretarako milioi t'erdie edo bi milioi ordainduko litzateke atzakea.

Lehen proposamenaren 738 kirol ontzi sartuko lirateke zela eta kaiak 53.000 m² litzuke. Metro horietan ur zabalerak bakarrik hartzen da gogoan, ez kai inguruak. Bigarren proposamenaren 758 ontzi eta 63.000 m² aipatzen dira. Hirugarrenaren (handienaren) 800 ontzi eta 72.000 m². Laugarrenaren 760 ontzi eta 74.000 m². Horretarako, 6, 8 eta 10 metroko kirol ontziak kalkulatu dira. Horretaz gainera, inguruak, taler bikiak, alimenezak, grua, dendaren bat eta bestelako zerbitzuentzako lekua behar da. Eta 400 berebilentzako aparkalekuak, pribatuak, kirol-kai hau, besteak bezala, pribatu baliatzeke. Autofinanziatu dadin asmoa dago

Arazoa, oso bestela planteatzen da Portu Zuzendartaren eta Hondarribiaren ikusmoldeak begiratu. Portu Zuzendartak, portuak egiteaz arduratzen da soilik, horixe bait da bere zeregina; bestelaz ez daki ezer; ez bait da bere eginkizuna. Berak, bere ikusmoldeak, Getarian, Hondarribian eta egoki denitza lekuetan kirol-kaia egitea planifikatzen du eta, berez, herriaren plangintza orokorra ez zaio ardura. Eta, horrela ez duela jokatu espero bada ere, nahi balu, Udalaren baimenik gabe ere egin lezake kaia.

Udala, jarreraz, ez dago Hondarribian kirol-kai bat egitearen aurka. Gauzak zentzu onez eginez gero, mesedegarri ere izan daiteke herriarentzat. Zein da, ordea, Hondarribiari komeni zaion kirol-kaia? Nolako?

Udala, jarreraz, ez dago Hondarribian kirol-kai bat egitearen aurka. Gauzak zentzu onez eginez gero, mesedegarri ere izan daiteke herriarentzat. Zein da, ordea, Hondarribiari komeni zaion kirol-kaia? Nolako?

RAKEL RUIZ, KLINGENTHAL-EKO AKORDEOI LEHIAKETARA

Hondarribiko akordeolari arrobia agortzeina da eta hauen balioa hemendik urrutie ere aitorzen dute. Ihazko maiatzaren 1doia Otegi joan zen Klingenthaleko akordeoi lehiaketara, hamairu-hamabost urte bitarteko kategorian parte hartzera eta lehen saria ekarri zigan Hondarribira. Aurtien beste hondarribiar bat doakigui hara: Rakel Ruiz. Hamabost-hamazazpi urte bitarteko kategorian parte hartzeko asmatan.

Rakel, BUPeko ikaslea da Hondarribiko institutuan eta bertan hitz egin dugu berarekin akordeoi lehiaketaz eta ikasketaz.

-Rakel, noiz hasi zinen akordeoia jotzen?

-Hamaika urterekin hasi nintzen. Karlos Ilurralderen akademian. Hiru urte pasa eta gero "Txanpa Musika Taldea"n hasi nintzen. Talde honekin ere Estrasburgoko lehiaketara joan nintzen azaroan eta arrakasta handia izan genuen.

-Noiz joango zara Klingenthalera?

-Maiatzaren hamabitik hogeira.

-Adieraz diezaguzu piska bat nolakoan den lehiaketa hau...

-Lau kategoriatan dago banatua. adinaren arabera. Batetik, hamabi, hamabost, eta hemezortzi urte bitartekoak kategoriak daude, eta, bestetik, hemezortzitik gora dituztena. Kategoria guztietan kanporaketa fase bat gairitu behar izaten da azken fasea iristeko. Nire kategorian obra batzuk jo behar dira, buruz. Guztira, orduete inguru aritu behar izaten da. Lehiaketa hau garran-

tzitsuen da, "Coupe Mondiale" delakoarekin batean, kalitatearen aldetik gori mailakoa da beraz. Animatua nago eta ahal dudana egiten saiatuko naiz.

-Zenbat ordu jotzen duzu egunero akordeoia?

-Normalean, bost ordu egunero.

-Eta gainerako ikasketak?

-Oraingoz ongi noa ikasketekin. Alemaniatik itzultakoan galdutako denbora berreskuratu beharko dut.

Non kokatua? Zein neurritakoa? Norentzat izango litzateke? Zer gertatuko da gaurko egunean hor dauden ontzi guztiek? Askok ezin izango bait dute eskatzen den dirutza haundi hori ordaindu. Zertan geldituko da hondartzaren inguru hurbila, aparkamentu publikoak eta abar? Ezin ahaztu dezakegu hondartzak eskualde guztierako betetzen duen funtzio soziala.

Lurralde hori ez dago hermitik kanpo eta planifikazio bat behar da inguru osoa go goan hartuta. Hori dela eta, plangintza orokor bat eskatzen du Udala. Gauzak ondo pentsatuta eta presarik gabe egitea. Arau Subsidiarioak oraindik onartu gabe daudelarik, batez ere. Izan ere, Udala bere aldetik, badiu premia larriagoak eta urjentekoak kirola-kaia baino, hala nola Arau Subsidiarioak bukatzea, etxebizitza publiko erantzun bat ematea, industri eremuak antolatzea, e.a.

Horretan daude gauzak. Zailtzen gabe, elkarrizketa luzeak beharko dira eta negoziatio patxadatsuek zintzilik eta askatutik dauden soka mutur ugariak ondo lotzeko. Alde guztietatik elkar aditzeko gogoia egongo dela uste dugu, zentzu zuhurra eta elkarrekin hitz eginez herriaren mesedea biltzeko jarrera borondateatsua, batzuen eta beste aldetik.

Horrela da, bai. Denetara iristen da Rakel, oso neska argia eta saiata baita, bere denbora ederki aprobetxatzen dakiena.

Bukatzeko, azken orduko berri onak eman behar ditugu. Otsailaren 25eko asteburu honetan Santurtziko Udala antolatzen duen Akordeoi Trofeo Estatalean aurkeztu da Rakel eta berarentzat izan da lehen saria... Zorionak, eta animo Klingenthalerako!

Teba Salvador

